



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA,  
PROZEDURA IREKI BIDEZ, LEGAZPIKO GIZARTE-ZENTROKO TABERNA-JANTOKIA  
USTIATZEKO KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIA ARAUTUKO DUENA**

**I. KONTRATUAREN EDUKIA**

**1. KONTRATUAREN XEDEA**

Hauxe da Agiri honen arabera egingo den kontratazioaren helburua: Legazpiko Gizarte-zentroan dagoen taberna-jantokiko zerbitzua ustiatzea, kontratu izaera izango duen espedientean ageri den dokumentazioaren arabera.

**2. EPEA**

Kontratuaren iraunaldia 2 urtekoa izango da, sinatuko den egunetik zenbatzen hasita, eta urtez urte luzatu ahal izango da. Kontratazio-organoak erabakiko du luzapena eta enpresariak bete egin beharko du, kontratuak kontrakoa aurreikusiko ez duen bitartean eta, kasu horretan, ezingo da luzapena onartu alderdi bien isilbidezko adostasunarekin.

Dena den, luzapenak barne, kontratuak ezingo du 4 urte baino gehiago iraun.

**3. ARAUBIDE EKONOMIKOA.**

Kontratuaren araubide ekonomikoa ondorengo baldintzen mende egongo da:

**\* KANONA:**

Urteko 1.000,00 eurotan ezarri da kanona, esleipendunak goraka hobetu dezaketena. Esleipendunak kontratua hasiko den lehenengo hiru hilabeteren barruan ordaindu beharko du kanona eta, luzapenak egonez gero berdin, hau da, lehenengo hiru hilabeteren barruan.

**\* ESLEIPENDUNAREN KONTURA DOAZEN GASTUAK:**

Esleipendunaren kontura joango dira zerbitzua ustiatzearen ondorioz sortuko diren gastu guztiak eta, batik bat, ondoko hauek:

- Kontratua prestatzearen eta kontratua formalizatzearen gastuak.
- Egongo balira, bere zerbitzura dauden langileak kontratatzea.
- Taberna ustiatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak kontratatzea.
- Taberna ustiatzeko utzi den ekipamendua erabilera egokian mantentzeko lanen eta konponketen gastuak. Modu berean, esleipendunaren kontura izango dira esleipena egin zen unean zerbitzuan utzi eta jarri den tresneria ordezkatzeari dagozkion gastuak.
- Agiri honetan bereziki kanpo utzi ez den eta zerbitzua prestatzearekin zerikusia duen beste



**LEGAZPIKO  
UDALA**

edozein gastu.

- Udalak ustiapenerako utzitako eta II. Eranskinean zerrendatutako lokala, instalazioak eta ekipamendua, Udalari itzuliko zaizkio kontratua amaitu eta gero. Modu berean, kontratua amaitu ondoren, tokiko jabego publikokoak izatera pasatuko dira esleipendunak egindako obrak edo instalazioak.

**\* UDALAREN KONTURA DOAZEN GASTUAK:**

- Bere osotasunean Gizarte-zentroko edukiari eta edukitzaileari dagokionez, administrazio honek kontratatuko dituen aseguruen gastuak.
- Uraren, gasaren, elektrizitatearen eta berogailuaren gastuak.
- Kontratuaren hasieran esleipendunaren esku utzi zen ekipamenduaren antzekoa berriz jartzeak ekarriko dituen gastuak, ekipamendu horren hondatzea esleipendunak gaizki erabili duelako eta ongi mantendu ez duelako eman denean izan ezik.

**\* ESKAINITAKO PRODUKTUEN PREZIOA:**

Esleipendunak erabiltzaileek kontsumituko dituzten produktuengatik

diru-ordaina jasotzeko eskubidea izango du. Aipatu produktuaren prezioak Legazpiko Udalak ezarriko ditu eta Agiri honen I. Eranskinean jasotakoak izango dira.

Prezio horiek urtero berrikusi ahal izango dira eta igoyeraren portzentajea ez da Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Kontsumoko Prezioen Indizeak aurreko abenduaren gainean izandako igoera tasa baino handiagoa izango. Igoera aplikatzeko eskaera hilabete lehenago egin beharko du esleipendunak.

#### **4. FINANTZATZEA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da urte honetako aurrekontuan. Modu berean, aurrekontu gaitan eskumena duen organoak kontratua iraungo duen hurrengo urteetako ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jartzeko konpromisoa hartzen du.

#### **5. ORDAINTZEKO MODUA**

Esleipendunak Legazpiko Udalak zehaztuko duen prozeduraren bidez ordainduko du aipatu kanonaren zenbatekoa.

#### **6. PREZIOAK BERRIKUSTEA**

Kontratu honen prezioak berraztertu ahal izango dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 89 eta 94 bitarteko artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 104 eta 106 bitarteko artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

## **7. BERMEAK**

Eskaintza ekonomiko hoberena aurkeztuko duen esleipendunak 2.000,00 euroko behin betiko bermea ezarri beharko du, hartutako obligazioak beteko direla bermatzeko.

Berme hori jartzeko epea esleipenaren jakinarazpenean jasotakoa izango da. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan azaltzen diren estatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabili daitezke. Baldintza hori lizitatuazaleari egotz dakizkiokeen arazoengatik betetzen ez bada, bere alde egindako esleipenak ez du ondorioz izango.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

## **8. KONTRATUA BURUTZEA**

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Kontratua, agiri honetan dauden baldintzen arabera beteko da, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoaren arabera ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

## **9. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK**

1. Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

2. Prestatu beharreko zerbitzua kontratuan, baldintza-agiri honetan eta esleipena egiteko oinarritzat hartuko den programan jasotako ezaugarrien arabera eta horietan ezarritako epeen barruan antolatu eta burutuko da.

3. Zerbitzua hitzartutako jarraitutasunarekin prestatzea.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

4. Zerbitzuaren ordena egokia zaintzea, horretarako eman beharreko jarraibideak emanaz. Hala ere, Udalak beharrezko eskumenak gordeko ditu taberna-jantokiaren zerbitzuaren martxa ona ziurtatzeko.
5. kontratistaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.
6. Kontratutako zerbitzua esleipendunaren barne zein kanpoko egoerei, hala nola lan-gatazkei eta zerbitzuaren ohiko garapena oztopa dezakeen bestelako egoerei kasurik egin gabe burutuko da.
7. Instalazioak, tresneria eta altzariak egoera onean zaintzea eta esleitutako zerbitzua emateko erabiltzea. Horrela, ondasunen inbentarioa egingo da (II. Eranskina) emakidadunaren aurrean eta alderdi biek ados jarritz gero, inbentario hori aldatu egin ahal izango da emakidaren epean zehar.
8. Emakida amaitzean instalazioak eta materiala entregatzea. Une horretan berriro berrikusiko da inbentarioa.
9. Publikoaren eta bere ardurapeko pertsonen portaera ona zaintzea; halaber, zerbitzu arduratsua eskaintzea erabiltzaileei eta gainerakoei, adeitasuna eta begirunea agertuz.
10. Bere kasa hartu nahi dutena mahaira eraman ezin duten erabiltzaileei laguntza eskaintzea.
11. Ezingo da burutu beharreko kontratuaren eskubideak eta betebeharrak azpi-errentan eman, utzi edo eskualdatu.
12. Burutuko den jarduerak bete behar dituen indarreko lege-betebeharrak betetzea. Instalazio guztiek zorrotzasunez bete beharko dituzte osasun arloan indarrean dauden arauak.
13. Larunbatetan eta igandeetan esleipenduna izango da Gizarte-zentroa zabalduko eta itxiko duena, erabiltzaileak tabernara sar daitezten; gainerako gelak eta zerbitzuak itxita egongo dira eta esleipendunaren ardura izango da zentroa zaintzea. Modu berean, esleipendunaren ardura izango da Udalak zehaztuko dituen lanegunetan ere Gizarte-zentroa zabaltzea eta ixtea, beti ere Buztintegi elkarteko Zuzendaritza batzordearen oniritziarekin.
14. Esleipendunak janari-erabiltzaileei buruz dauden arauak ezarri dituen otsailaren 11ko 202/2000 Errege-dekretuan ezarritakoa berariaz betetzeko obligazioa izango du.
15. Gutxienez 300.000€,00 €ko kapital aseguratua izango duen erantzukizun zibileko poliza kontratatzea, hirugarrenei lekizkieken kalteei erantzun ahal izateko.
16. Emakidadunaren kontura joango da, kontratuak dirauen bitartean hondatuko diren tabernako tresneria konpontzea eta berriz jartzea.
17. Esleipendunak ezingo ditu kartelak, makinak, errotuluak edo iragarkiak jarri, ez komertzialak eta ez politikoak, eta ezingo du obrarik egin Udalaren berariazko baimenik gabe.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

18. Esleipendunak sei hilean behin honako agiriak aurkeztuko dizkio Udalari: BEZaren aitorenaren eta Sozietateen gaineko zergen kopiak. Modu horretan, Udalak Gizarte-zentroko taberna berriro lehiaketara atera behar duenean, irizpideak ezartzeko datu fidagarriak izango ditu. Era berean, dagokionean, esleipendunak bere kargu izango dituen langileen lan-kontratuak aurkeztu beharko du.

19. Esleipendunak behar adina langile izango ditu agindutako eginkizunak behar bezala betetzeko. Edozein unetan aseguruak erakustea eskatu ahal izango da, kontratuan eta lan-arloko legerian ezarritakoa betetzen ari dela egiaztatzeko. Betebeharrekoa betetzen ez denean kontratua bertan behera utzi ahal izango da. Udalak ez du erantzukizunik izango esleipendunak kontratatutako langileekiko dituen lan-betebeharrak betetzen ez badira eta hirugarrenekin dituen harremanak egokiak ez badira.

20. Ahal den neurrian, esleipendunak bertako produktuak, ekologikoak eta bidezko merkataritzakoak erabili behar ditu. Era berean, Bertatik Bertara proiektuan parte hartuko du, bertako produktuak erabaliz eta bultzatuz.

21. Lehiaketaren eta kontratuaren ondorioz sortuko diren gastu guztiak ordaintzea, hala nola, Aldizkari Ofizialean eta komunikabideetan ezarritako iragarkiak, bermeak ezartzeari dagozkion gastuak eta, dagokionean, kontratua eskritura publikoan jasotzeari eta haien kopiak egiteari dagozkionak.

## **10. KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK.**

### **Zerbitzua erabiliko dutenen deskripzioa.**

Hauek izango dira bereziki Gizarte-zentroko taberna erabiliko dutenak: Gizartekintzaren menpeko Gizarte-zentroen funtzionamenduari buruzko Oinarrizko Arauen 12. eta 13. artikuluetan aipatzen diren pertsonak (1996ko urriaren 9ko 460 Foru Araua, 1996ko urriaren 17ko GAOn argitaratua) eta horiei, I. Eranskinean ezarritako prezioak aplikatuko zaizkie.

*12. artikulua. Gizarte-zentroko onuradunak.*

*Gizarte-zentroko onuradun izango dira:*

- a) Zentroko bazkide gisa, bertako lokalak erabiltzeko lagapena egin zaien Pertsona Nagusien Elkarteetan eskubide osoko izaera duen oro, eta*
- b) Erabiltzaile gisa, zentroko zerbitzuak erabiltzen dituztenak, nahiz eta lokalak erabiltzeko lagapena egin zaien elkarteetakoak ez izan edo lagapen hori eman gabe egon.*

*13. Artikulua.*

*Elkarteko bazkide edo Gizarte-zentroko erabiltzaile harpidedun eta botoduna izateko beharrezkoa izango da ondoko baldintzak betetzea:*



**LEGAZPIKO  
UDALA**

a) 60 urte izatea.

b) Zentroaren eguneroko bizitzaren harmonia arriskuan jar dezakeen jokabiderik ez izatea.

c) Bazkide edo erabiltzaileen ezkontideak, baliaezintasun iraunkorra edo erretiro aurreratuko pentsioa jaso, edota alargun izatea, beti ere, 55 urte beteta baditu.

Modu berean, edozein pertsonak erabili ahal izango du zerbitzua, aipatutako 12 eta 13 artikuluetan jasotako baldintza bete ez arren. Kasu horretan, esleipendunak ezarriko ditu prezioak askatasun osoz.

Jatetxeko zerbitzuari dagokionez, esleipendunak Eguneko Zentroko erabiltzaileei eskaini behar die zerbitzua eta hurrengo atalean zehazten denaren arabera. Erabiltzaile horiei I. Eranskinean ezarritako prezioak aplikatuko zaizkio. Modu berean, edozein pertsonari eskaini ahal izango dio zerbitzu hori eta, kasu horretan, esleipendunak libreki finkatu ahal izango du prezioa.

### **Zerbitzuaren deskripzioa.**

- **Taberna zerbitzua.** Esleipendunak, gutxienez, I. Eranskinean zehaztutako produktuak eskainiko dizkie erabiltzaileei. Edozelan ere, eskainitako produktuak zerbitzua zuzentzen zaion erabiltzaile-motaren ezaugarrietara egokitutakoak izango dira.

- **Jantokiko zerbitzua.**

Esleipendunak Legazpiko Eguneko Zentroari eskaini beharko dio zerbitzu hori, zentro horietarako egokia den menua eskainiz. Horren haritik, bazkaria eta askaria emango zaie Eguneko Zentroko 24 erabiltzailereri astelehenetik ostiralera. Aldiz, larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan 12 erabiltzailereri emango zaie bazkaria, askaria eta afaria. Kasu horretan, menuen prezioa I. Eranskinean ezarritakoak izango dira.

Modu berean, esleipendunak edozein pertsonari eskaini ahal izango dio jantokiko zerbitzua, horientzako prezioak libreki ezarriz.

- Esleipendunak urteko egun guztietan (abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik) mantenduko du zerbitzua irekita eta hura prestatzeko moduan egon beharko du. Ordutegia, aldiz, hauxe izango da: astelehenetik ostiralera, gutxienez, goizeko 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 21:00etara; larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan, arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara.

Esleipendunak, gehienez ere, urtean 30 egun naturaletan itxi ahal izango du taberna. Horretarako Udalaren berariazko baimena jaso beharko du, Buztingegiko Zuzendaritza batzordeari entzun eta gero. Hala ere, urteko egun guztietan (abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik) Eguneko Zentroari otorduen zerbitzua eskainiko zaiela bermatu beharko da.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

- Udalak egunero garbituko ditu bai jantokia eta baita gizarte-zentroko komunak ere. Dena den, beharra egonez gero, esleipendunak baldintza egokietan mantenduko ditu instalazioak.
- Legazpiko Udalak ontziteri berrerabilgarria dauka, Udalak berak edo ikastetxeek, udal elkarteek,... antolatuko dituzten ekitaldi desberdinean erabiltzeko direnak. Azken helburua horrelako ekitaldietan sortzen den hondakin kopurua murriztea da. Zentzu horretan, esleipendunak ondoko ardurak hartuko ditu:

**Edalontziak eta platerak garbitzea.** Horietako bakoitzeko 0,06 € kobratuko dizkio erabiltzaileari.

**Ekitaldia amaitu eta gero itzultako edalontzien eta plateren kopurua hasieran utzitakoarekin bat datorrela egiaztatzea.** Horrezaz gain, faltako den bakoitzeko euro 1 kobratuko du esleipendunak.

**Hiru hilean behin** eskainitako zerbitzuen berri Udalari ematea eta galdutakoengatik jasotako dirua ordaintzea.

## **11. KONTRATUA ALDATZEA.**

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 107. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada eta, beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

## **12. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU**

### **A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA**

Kontratastak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan prestatu beharreko zerbitzuak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo zerbitzua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 € kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

## **B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA**

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuan zehaztutako prestazioen betetze partziala epean bukatzen ez badu, Udalak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

## **C. KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA**

Prestazioa akatsekin betetzen bada, Udalak kontratuaren aurrekontuaren %10eko diru-zigorra ezarri ahal izango du.

## **D. KAUDIMEN KONPROMISOAK EZ BETETZEA**

Kontratatistak bere eskaintzan adierazitako bitarteko materialak eta langileak erabiltzeko betebeharra betetzen ez badu, 19. klausulan ezarritakoaren arabera, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10aren adinako diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

## **13. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOIAK**

Zerbitzu-kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 308. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

## **14. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK**

Udalari dagokio kontratua interpretatzea, kontratua betetzean sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, beti ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako baldintza eta ondorioei eutsiz.

## **II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA**

### **15. ESLEIPENA EGITEKO MODUA**

Kontratu honen esleipena prozedura irekiaren bidez egingo da.

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak baloratzeko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

1. Zerbitzua burutzeko proposamen teknikoa. 45 puntura arte.





**LEGAZPIKO  
UDALA**

2. Proposamen ekonomikoa: 25 puntura arte.
3. Esleipendunaren edo zerbitzua prestatzeko hark kontratatuko duen pertsonaren egoera pertsonala. 25 puntura arte.
4. Hobekuntzak. 5 puntura arte.

Aipatu irizpideetatik, **balio-judizioaren arabera** izan eta automatikoki antzematen direnak baino lehenago balioetsiko diren irizpideak honako hauek dira:

**1. Zerbitzuaren proposamen teknikoa. 45 puntura arte.** Honako alderdiak baloratuko dira:

- Zerbitzuaren antolamendua eta funtzioak .10 puntura arte
- Langileen antolaketa: Lanpostuen deskribapena eta kopurua, txandakako lanegunak, larunbatak, igandeak eta jaiegunak bereiziz. 10 puntura arte.
- Atxikitako langileen funtzioak. 5 puntura arte
- Ekipamenduak eta zerbitzuak hobetzeko proposamenak, Gizarte-zentroko instalazioetan eta altzarietan lehiatzaileak egingo dituen inbertsioak zehaztuz. 10 puntura arte.
- Garbiketako eta mantentze-lanetako plana. 5 puntura arte.
- Prestakuntza-plana. Taberna-jantokira atxikitako langileentzako Prestakuntza-programa, 5 puntura arte.

**2. Hobekuntzak. 5 puntura arte.**

**Automatikoki antzematen diren irizpideak**, jarraian adierazten direnak, honako formula hauek aplikatuz balioetsiko dira:

**1.- Proposamen ekonomikoa. Proposamen horretan esleipendunak Legazpiko Udalari ordainduko dion kanona proposatuko du. 25 puntura arte.**

Puntuak ondoko formula erabiliz banatuko dira:

$$\text{Puntuazioa} = \text{puntuazio handiena} \times \text{kasua} / \text{eskaintza onena}$$

**2. Esleipendunaren edo zerbitzua prestatzeko hark kontratatuko duen pertsonaren egoera pertsonala. 25 puntura arte.** Puntuak ondoren zehaztuko den moduan banatuko dira:

Lan gabe egotea: **15 puntura** arte. Puntuak ondoren zehaztuko den moduan banatuko dira:

- \* 6 hilabete arteko langabezia: 5 puntu.
- \* 6 hilabete eta urtebeteko arteko langabezia: 10 puntu.
- \* Urtebete baino gehiago langabezian: 15 puntu.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

Legazpin erroldatuta egotea: 10 puntu.

## **16. KONTRATAZIO MAHAIA**

Kontratazeko mahaiak honako kideek osatuko dituzte: mahaiburuak, idazkariak eta, gutxienez, lau mahaikidek; kontratazio-organoak izendatuko ditu guztiak. Mahaikideen artean derrigorrez egongo dira kontratazio-organoaren aholkularitza juridikoaren ardura izango duen funtzionario bat eta kontu-hartzaile bat. Bi horietako edozein ez baldin badago, organoaren aholkularitza juridikoa edo aurrekontuen eta diru-kontuen kontrola eramango duen edozein izango da kontratazio-mahaiko kide.

Idazkaria kontratazio-organoan bere zerbitzuak eskainiko dituen funtzionarioa izango da. Funtzionario bat izendatzea ezinezkoa denean, kontratazio-organoaren mende dagoen beste edozein langileen artean aukeratu da mahaikide izendatuko dena.

Kontratazio-mahaiko kideen izendapena izaera iraunkorarekin egin daiteke edo izaera espezifikoarekin kontratu bakoitzaren esleipenerako.

Aztertuko diren gaien izaeraren arabera, kontratazio-mahaiaren bileretan beharrezkotzat joko diren funtzionarioek edo aholkulari espezializatuak hartuko dute parte; horiek hitza izango dute baina ez botoa.

Mahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa; salbuespen bakarra idazkaria izango da, hitza bakarrik izango baitu.

Mahaia modu egokian eratuta gera dadin, ezinbestekoa izango da mahaikideen gehiengo osoa bertan egotea eta, nolahi ere, bertan egon beharko dute mahaiburuak, idazkariak eta organoaren aholkularitza juridikoa emateaz eta aurrekontuen eta diru-kontuen kontrola eramateaz arduratuko diren bi mahaikidek.

### Honako kideek osatuko dute kontratazio-mahaia:

Mahaiburua: Javier Iraeta Alvarez (EAJ).

Idazkaria: Ainhoa Urruela, AOT.

Mahaikideak:

- Lourdes Garcia, gizarte-langilea.
- Iñaki Gastañares, udal idazkaria.
- Fernando Arakama, kontu-hartzailea.
- Koldobike Olabide Huelga (Alkate andrea)
- Kepa Urzelai, Bildu.
- Oscar Valbuena Pascual, PSE-EE.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

- Alberto Bezunartea Fernandez, Irabazi.

## **17. KONTRATATZEKO GAITASUNA**

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 19. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridiko baten ordezkari bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, modu berean, kontratu honen helburua betetzeko edo jarduera burutzeko beharrezkoa den gaikuntza enpresariala eta profesionala izan beharko dute.

## **18. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA**

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Legazpiko udaletxeke Gizarte Zerbitzuetan aztertu ahal izango da, goizeko 9:00etatik 13:00etara, lanegunetan. Eta hauxe izango da horretarako epea: lehiaketa horren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, proposamenak aurkezteke epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, aipatu iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 15 egun naturaleko epean.

Baldin eta epearen azkeneko eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliouduna arte luzatuko da epea.

Lehiaketa, modu berean, kontratazio-organoaren kontratatzaile profileen argitaratuko da eta bertara honako atari informatikoaren edo Web orriaren bidez jo daiteke: [www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus).

Gune berean, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango da.

Lehiatzaileek agiriari buruz eskatuko duten informazio gehigarria edo dokumentazio osagarria, proposamenak jasotzeko ezarriko den epemuga baino sei egun lehenago



**LEGAZPIKO  
UDALA**

eskainiko da. Horretarako, informazio edo dokumentazio hori jasotzeko eskaria proposamenak jasotzeko aipatu epea igaro baino zortzi egun lehenago aurkeztu beharko da.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 158.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria ezarritako epeen barruan aurkeztu izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa “in situ” kontsultatu behar bada, eskaintzak aurkezteko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen aurkeztu. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileek, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidaltzen bada, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorren 80.4. artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

## **19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA**

Lehiatzaileek hiru kartazal (**A, B eta C**) aurkeztu beharko dituzten itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: “LEGAZPIKO GIZARTE-ZENTROKO TABERNA-JANTOKIAREN USTIATZEA PROZEDURA IREKI BIDEZKO KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-deiturak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi gutun-azalak ere izenpetuta aurkeztuko dira.

**“A” gutun-azalaren azpтитulua hau izango da:” KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”.** Hona hemen “A” gutun-azalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Parte hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea aurkeztuko da eta erakunde honek askietsiko du kartazal horretan aurkeztutako agirien sailkapen-prozesuan.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa denean, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian



**LEGAZPIKO  
UDALA**

inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jardura zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegoko kideak, ezarrita dauden Estatutuaren legeriarekin bat etorri dagokion erregistroan inskribatuta daudela egiaztatuko da; edo aplikagarriak diren komunitateko xedapenen arabera egindako zinpeko aitortpena edo egiaztagiria aurkeztuko da.

Bestelako enpresari atzerritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurralde-eremuko Kontsul Bulegoaren txostenaren bidez frogatuko da.

c) Lizitatzailak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; dena den, azkeneko bi egoera horien gaineko egiaztagiria aurkeztu ahal izango dira.

d) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du. **Dagokionean, aipatu zergan eta autonomoen erregimenean alta emateko konpromisoa, esleipenduna suertatuz gero.**

e) Kaudimena:

e.1) Lehiatzailearen ekonomia- eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 75.b) eta 78.b) artikuluetan ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.

Kaudimen ekonomikoa egiaztatzeari dagokionez, esleipendunak arrisku profesionalen kalte-ordainen aseguru bat duela adieraziko duen agiria aurkeztuko du. Aseguruaren zenbatekoa lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren agirietan eskatutako zenbatekoaren parekoa edo handiagoa izango da edo, horrelakorik ezean, araudiaren arabera ezarritakoa. **Dagokionean, aipatu aseguruan alta emateko konpromisoa, esleipenduna suertatuz gero.**

Modu berean, kontratuan parte hartzen duten langile teknikoak edo unitate teknikoak adieraziko dira, enpresan integratuta egon edo ez, batik bat, kalitate-kontrolaren ardura dutenak.

Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Erregelamendu orokorra onartu zuen urriaren 12ko 1098/2001 Errege-dekretuaren 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki, kontratu honen helburua ondoren adierazitakoaren arabera dago sailkatuta:



**LEGAZPIKO  
UDALA**

M Taldea, M-6 Azpi-taldea, Ostalaritzako zerbitzuak.

e.2) Kaudimenaren egiaztatzea bere eskaintzetan lehiatzaileek zehaztuko dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztuko dituen agiriarekin osatuko da. Agiri hori kontratuari atxikiko zaio eta kontratu-izaera izango du. Beraz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 64.2 artikuluan zehaztutakoaren arabera, hori ez betetzea kontratua baliogabetzeko arrazoia izan daiteke, 223.f) artikuluan jasotako ondorioekin.

Horrela, **esleipendunak edo kontratua burutzeko hark izendatuko duen pertsonak:**

1. Zerbitzua Euskadiko Autonomia Erkidegoan ofizialak diren hizkuntza ofizialen edozeinetan eskaintzeko gai izani beharko du. Dagokionean, alderdi hori egiaztatzeko elkarrizketa bat egingo da udal Euskaltegiko zuzendariarekin.
2. Kontratazioaren helburu den zerbitzua prestatzeko janari-higiene kontuetan ezinbesteko prestakuntza eta titulazioa jaso duela egiaztatu beharko du.

Zentzu horretan, esleipendunak Udalari idatziz eman beharko dio kontratua burutzeko egingo dituen kontratazioen berri.

Eskaintza ekonomiko hoberena aurkeztu duenak baldintza hori betetzen duela egiaztatu beharko du kontratua esleitu aurretik 151.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Proposamenetan, halaber, kontratua burutzeko ardura duen langileen izenak eta kualifikazio profesionala zehaztuko dira.

f) Hainbat enpresak negoziazio bidera jotzen badute aldi baterako enpresa-elkartea eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero, ABEE (aldi baterako enpresa-elkarte) formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-elkarteko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokkeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

**h) Adin txikikoen babes juridikoaren 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipendunak edo zerbitzua eskaintzeko hark kontratatuko duen pertsonak sexu delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria aurkeztu beharko du.**

i) Prozedura horren ondorioz sortzen diren jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 151.4 artikulua xedatutakoaren arabera.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

a), b) eta e.1) hizkietan eskatutako baldintzak modu desberdinetan egiaztatu ahal izango dira. Hona hemen aukerak: Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko egiaztagiriaren bidez edo Estatuko Lehiatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko egiaztagiriaren bidez edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 84. artikuluan ezarritakoaren arabera sailkapeneko erkidegoko egiaztagiriaren bidez. Aipatu egiaztagiriarekin batera lehiatzailearen aitorten arduratsua aurkeztuko da eta, bertan, aurkezten den egiaztagirian azaldutako egoerak aldatu ez direla adieraziko da.

Aurreko atalean aipatutako ziurtapena elektronikoki eman daiteke.

**“B” kartazalaren titulua hauxe izango da: “BALIO-JUDIZIO BATEN MENDE DAUDEN BALORAZIO IRIZPIDEAK”** eta agiri honen 15. Klausulan ezarritako irizpideei dagozkien dokumentuak sartuko dira bertan.

**“C” kartazalaren titulua “PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK” izango da** eta ondoko agiriak sartuko dira bertan:

- a) III. Eranskinean ezarritako ereduaren arabeko proposamen ekonomikoa.
- b) Baldintza-agiri honen 15. klausulan adierazitako automatikoki antzemateko irizpideei erreferentzia egiten dieten agiriak.

Eskatutako agiriak jatorrizkoak edo Administrazioak edo notarioak egiaztatutako kopia konpultsatuak izan daitezke. Agiri horien fotokopiak ere aurkeztu ahal izango dira baina, kasu horretan, lehen sailkatuak fotokopia horiek benetakoak direla erakutsiko du jatorrizkoak emanez.

## **20. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKITZEA ETA PROZESATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira:

### **1. “A” KARTAZALA IREKIKO DA ETA BERTAN DAUDEN AGIRIAK PROZESATUKO DIRA.**

Mahaiak "A" kartazalean dauden agiriak sailkatuko ditu. Horretarako, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko apea izango dute haien aurkezteko. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki oholean eta kontratatzailearen profilean. Era berean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki



**LEGAZPIKO  
UDALA**

bidez emango die horren berri lehiatzaileei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die, aipatu Araudiaren 81. artikuluan jasotakoaren arabera, akatsak zuzen ditzaten.

## 2. ENPRESAK AUKERATZEA

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, agiri honen 19. Klausulako e.1) hizkian zehaztutako irizpideak zein enpresek betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

## 3. "B" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA

"B" kartazalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten arabera irizpideen arabera baloratu beharreko agiriak dituen, ekitaldi publiko batean irekiko da, lehiatzaileei bidalitako posta elektronikoan adierazitako egunean. Helburu horretarako, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, Mahaiak, gehienez, sei egun balioduneko epea emango du horretarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legea zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege-dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## 4. "C" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA

"B" kartazalean aurkeztutako dokumentazioa ireki eta baloratu ondoren, "C" kartazala irekiko da jendaurrean, lehiatzaileei bidalitako posta elektronikoan adierazitako egunean eta orduan. Helburu horretarako, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, Mahaiak, gehienez, sei egun balioduneko epea emango du horretarako.

Irekiera-ekitaldi horretan, eskaintza bakoitzean balio-judizio baten arabera irizpideei eman zaien balorazioaren berri emango da.

## 5. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Irizpide guztiak balioesten direnean, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera eta esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 152. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen denean, lehiatzaileari (edo lehiatzaileei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa jasoko da.

Horrelakoetan, eskatutako txostenak ikusi eta lehiatzaileak esandakoa entzun ondoren, kontratazio-organoak Administrazioak ezarri dituen baldintzen arabera zerbitzua modu egokian bete dezakeen proposamen ekonomiko hoberenaren aldeko esleipena egitea erabakiko du.





**LEGAZPIKO  
UDALA**

Aitzitik, kontratazio-organoak eskaintza ezin dela bete uste badu, balio anormal edo neurrigabeak dituelako, sailkapenetik baztertuko du eta ekonomikoki proposamenik onuragarrienaren aldeko esleipena egingo du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraiki.

Emandako pauso guztien berri emango da espedientean, derrigorrean idatziko diren aktetan jasoz.

## **6. ERREKERIMENDUA, HALA BADAGOKIO, LEHEN SAILKATUARI**

Aurreko pausoak eman ostean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean, lehen sailkatuari honako ekintzak egin ditzala eskatuko zaio:

- a) Gizarte Segurantzarekiko zerga-obligazio guztiak beteta dituela egiaztatuko duen agiria aurkeztu behar du. Ez da beharrezkoa izango agiri horiek berriz ere aurkeztea proposamenarekin batera aurkeztu baditu.
- b) Kontratua burutzeko beharrezkoak izango diren bitartekoak esleitzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztea, baldintza-agiri honen 19. klausulako e.2) letraren arabera.
- c) Behin betiko bermea jarri duela egiaztatuko duen agiria aurkeztuko du, hala badagokio.
- d) Jatorrizko agiriak aurkeztuko ditu, proposamena osatzen duten kartazaletan fotokopia hutsak aurkeztu badira.
- e) Dagokionean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta autonomoen erregimenean alta emanda dagoela egiaztatuko duten agiriak aurkeztuko ditu; baita dagokion aseguruua duela egiaztatuko duen agiria ere.

Eskatutakoa ezarritako epean betetzen ez bada, lizitatuak bere eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da eta, beraz, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordena jarraituz, hurrengo lehiatzaileari eskatuko zaio agiri horiek aurkeztea.

## **21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK.**

Esleipena arrazoitua izango da, hautagaiei edo lizitatuak jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profila argitaratuko da.

Jakinarazpena hartu behar duenak jaso duela egiaztatzea ahalbidetuko duen edozein bide erabiliz egingo da. Bereziki, posta elektronikoaren bidez egin ahal izango da, lehiatzaileek edo hautagaiek aurkeztu dituzten proposamenetan eskaintako helbideetara.

Eskaintzen izaera neurrigabea edo ezohikoa aldarrikatzeko, aurrez eskaintza hori aurkeztu duen lehiatzaileari edo, hala balegokio, eskaintza horiek aurkeztu dituzten lehiatzaileei entzungo zaie eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza tekniko jasoko da.

Kontratua sinatzeari uko egitea edo prozedura aintzat ez hartzea esleipena egin aurretik erabaki dezake bakarrik kontratatze organoak. Kasu bietan, hautagaiek edo lehiatzaileek dagoeneko



**LEGAZPIKO  
UDALA**

egin dituzten gastuak konpentsatu egingo dira, iragarkian edo baldintza-agirian aurreikusitako eran, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Kontratua administrazio-agirian jasoko da eta lehiaketaren baldintzetara egokituko da zehatz-mehatz. Agiri hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikora jotzeko. Dena den, kontratistak kontratua eskritura publikoan jasotzea eska dezake; kasu horretan, bere kontura joango dira sortuko diren gastuak. Formalizatuko den kontratuan ezingo dira, inola ere ez, esleipenaren baldintzak aldatzea ekarriko duten klausulak sartu.

151. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, lizitzaileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena bidali eta hurrengo hamabost laneguneko epearen barruan formalizatuko da kontratua.

Esleipendunaren erruagatik ezarritako epearen barruan kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak behin betiko bermea bahitzea erabaki dezake.

Aldiz, kontratua Administrazioaren erruagatik formalizatu gabe geratzen denean, esleipendunari atzerapenen ondorioz sor dakizkiokeen kalteak ordainduko zaizkio.

Kontratua ezingo da gauzatzen hasi aurretik formalizatu ez bada, Legearen 113. artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

## **22. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.**

Kontratua burutzean esleipendunak egingo dituen arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

Honako hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

- Ezarriko den ordutegia eta oporretako txanda ez betetzea.
- Esleipendunaren bete beharreko obligazioak ez betetzea.
- Behin baino gehiagotan arau-hauste larriak izatea.
- Baldintza Ekonomiko eta Administratiboan Agiri honetan aurreikusitako baldintzetan jarduerari ez ekitea.
- Kontratuari atxikitako pertsonetikiko lan-obligazioak eta Gizarte Segurantzakoak ez betetzea.
- Kontratuaren helburu diren lanak egiteari uztea edo etetea, ezinbesteko kasuan izan ezik.

Honako hauek izango dira arau-hauste larriak:

- Behin baino gehiagotan arau-hauste arinak izatea.
- Instalazioen balio galtzea ekarriko duten esleipendunaren jokabideak.
- Utzitako zerbitzu publikoaren erabilera normala.
- Emakidaren helburu ez den jarduerari ekitea.
- Kontratuaren oinarrizko obligazioak larriki haustea.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

- Kontratuaren helburu diren lanak burutzean behar adina prestasuna eta profesionaltasuna ez erakustea.
- Legazpiko Udalak emandako jarraibideak arinki ez betetzea.
- Erabiltzaileak gaizki hartzea.
- Zerbitzua akatsez prestatzea.

Zigorrak:

- Arau-hauste oso larriek, lehenengo aldiz egiten direnean, 600,00 eta 900,00 € bitarteko zigorra jasoko dute eta arauak behin baino gehiagotan hautsiz gero, emakida iraungitzera irits daiteke. Zigorrak pilatzeko urte beteko epea ezarri da.
- Arau-hauste larriek 300,00 eta 600,00 € bitarteko isuna jasoko dute.
- Arau-hauste arinak, izatekotan ere, oharrarazpenarekin zigortuko dira eta 300,0 € irits daitezkeen isunak jar daitezke.
- Arau-hauste larriak eta oso larriak direnean, harreman juridikoan gertakarietatik sor daitezkeen ondorioak eskatuko dira:
- Kontratistak bere oinarrizko obligazioetan arau-hauste larriak egiten baditu, kontratua indargabetuztat emango da. Eta arau-hauste larriak zerbitzuen prestazio egokian arriskuan jarriko balu, Udalak esleipenaren erreskatea eska dezake.

Modu berean, arau-hauste larriak edo oso larriak behin eta berriz egiteak, kontratua indargabetzea ekarriko du.

Zigorrek ezartzeak ez du esan nahi kontratua ez betetzearen ondorioz Legazpiko Udalak jasan ditzakeen kalte-ordainak jasotzeko duen eskubidea bertan behera geratuko denik.

Zigorrek mailakatzean, honakoak hartuko dira kontuan:

- Asmo txarra.
- Arriskua, pertsoneri edo lokalean eragindako kalteak edo galerak.
- Eragindako kalte ekonomikoa.

### **III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

#### **23. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoaren arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektorre Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen, azaroaren 14ko, 3/2011 Legegintzako Errege-dekretua; Sektorre Publikoko Kontratuari buruzko urriaren 30eko 30/2007



**LEGAZPIKO  
UDALA**

Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege-dekretua; 2001eko urriaren 12ko 1098/200a Errege-dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 Legegintzako Errege-dekretuaren aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio-baldintza zehatzen Agiri honetan eta espedienteari lotutako gainerako agiri teknikoetan ezarritakoa bat ez etorritz gero, Agiri honetan jasotakoa izango da baliouduna.

#### **24. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEIA**

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruz abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren Hogeita Seigarren Xedapen gehigarrian eta Legea garatzen duen arauetan jasotako obligazioak bete beharko ditu.

#### **25. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren bideari amaiera emango diote, hala badagokio, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 40. artikulutik 49. artikulura xedatutakoaren arabera, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako edozein artikuluren arabera, kontratazioaren alorrean errekurtsio berezia jartzeko aukeraren aurka egin gabe.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

### III. ERANSKINA. LEHIATZAILEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK JARRAITUKO DUTEN DIRU PROPOSAMENAREN EREDUA

Izen-deiturak: .....

Helbidea: .....

Kode postala: .....

NAN: ..... telefonoa: ..... posta elektronikoa: .....

zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean edo ondokoaren izenean:

Ordez kariaren datuak:

Izen-deiturak.....

Helbidea.....

Posta-kodea: ..... Telefonoa: .....

NA edo IFZ ( (pertsonea fisikoa edo juridikoa denaren arabera): .....

Prozedura negoziatuaren bidez honako kontratazioan parte hartzeko gonbitea jaso ondoren:

.....

....., zera adierazi nahi dut:

1) Kontratua .....€-tan (BEZa barne) burutzeko konpromisoa hartzen dudala.

2) Administrazio-baldintza zehatzen Agiria, Baldintza teknikoaren Agiria eta kontratua arautuko duten gainontzeko dokumentuak ezagutzen ditudala eta osorik nire gain eta ontzat hartzen ditudala.

3) Ordezkatzen dudana enpresak hura ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituela.

.....n, 20.....(e)ko .....aren .....(e)an.

Izenpea,